

**Euskarazko komunikabide multimedia baten proiektua**  
[www.gaztegaragazte.org](http://www.gaztegaragazte.org)

**Imanol Epelde Pagola**

### 0.Sarrera

#### 1.Proposamenaren justifikazioa euskarazko komunikabideen eskaintzaren testuinguruan

- 1.1.Egoera soziolinguistikoaren araberako erronkak
- 1.2.Lehenetsi beharreko hedabideak
  - 1.2.1.Internet
- 1.3.Lehenetsi beharreko kontsumitzaile taldeak
- 1.4.Hedabidearen nolakotasuna
- 1.5.Ondorioz... [www.gaztegaragazte.org](http://www.gaztegaragazte.org)

#### 2. Inkesta txiki baten emaitzak eta ondorioak

- 2.1. Nortzuk bete dute inkesta eta zergatik
- 2.2. Galdetegiko galderak, erantzunak eta ondorioak galderaka. Antoniano Ikastetxea.
- 2.3. Galdetegiko galderen erantzunak eta ondorioak laburbilduta. Ordiziako Jakintza ikastola.
- 2.4. Ondorio nagusiak

#### 3. Proiektuaren izena eta izana

- 3.1. Proiektuaren izana
  - 3.1.1. Proiektu parte hartzailea
  - 3.1.2. Edukien nolakotasuna
- 3.2. Proiektuaren izana

#### 4. Proiektuaren hizkuntza

- 4.1.Gazte hizkera zehazteko irizpideak
- 4.2. Gazte hizkeraren datu basea oinarri
- 4.3. Norbere hizkeratik aberastutako hizkera

#### 5. Proiektuaren zabalpena

- 5.1.Sare sozialak abiapuntu
- 5.2.Sare sozialen ezaugarriak
- 5.3.Sare sozialetan eragin

#### 6. Amaitzeko hitz bi

## 0. Sarrera

Proiektu honekin gazteentzako interneten euskarazko gune eta erreferentzietan buruzko hausnarketa eta proposamena egitea da asmoa. Ziur baikaude gazteentzat eta gazteekin euskaraz eta euskararengatik lan egitea ezinbestekoa dela sarean ere, proiektu honetan zehar azaltzen saiatuko garen bezala.

Hala ere, eta ezertan hasi aurretik, gazte terminoa definizioan estutu beharra daukagu. Gazte izateak gauza asko esan nahi ditu eta are gehiago gaur egungo jendartean. **Gu 12 urtetatik hasi eta 16 urtera bitarteko gazteentzako proiektuan zentratuko gara lan honetan.** Har genezakeen 18 urtera arte ere edo 26 urtera arte ere bai. Edo gehiago. Zergatik ez! Baina 12 urtetatik aurrera adin diferentziak ikaragarri handiak direla kontuan izanda, adin batzuetara mugatu beste erremediorik ez dugu. Hain justu, nerabezaroa hasten den eta ia amaitzen den garai hori izango dugu jopuntuan (12-16 urte), [nahiz eta urte gehiagotan luzatzen den normalean garai hau](#). Uste dugulako adin tarte horretan euskarazko sareko erreferentziak ezagutzen eta erabiltzen badituzte hortik aurrera ere jarraituko dutela bidelagun berdinekin.

Eta gure proiektuarekin ahalik eta gehien asmatzeko adin horretako gazteei inkesta bat ere egin diegu, guretzako baliagarriak izango diren pista asko emango dizkigutelakoan. 16tik 18ra urteko gazteei ere egin diegu galdeketa bat, euren erantzunak zenbat aldatzen diren jakiteko eta eragin eremuak aldatu behar diren edo ez jakiteko gazteak handitzen diren ahala. Beraz, proiektuaren justifikazioa egin ondoren inkestaren emaitzak eta ondorioak azalduko ditugu eta ondoren hasiko gara proiektua zirriborratzen.

### 1. Proposamenaren justifikazioa euskarazko komunikabideen eskaintzaren testuinguruan

Gazteentzako eta gazteekin egindako ataria da proiektu honetan proposatu nahi dena. Batetik, etorkizuna euskaraz baldin badator gazteei euskarazko gune eta erreferentziak eskaini behar zaizkielako sarean. Eta bestetik, gune eta erreferentzia horiek [web 2.0 filosofiaren baitan](#) pentsatuak izan behar dutelako, gazteei ahotsa emateaz gainera parte hartzeko bideak emanaz. Halaz ere, eta ezertan hasi aurretik, ezinbestekoa iruditzen zait "[Euskara hedabideetan](#)" izeneko txostenean biltzen diren iritziak hona ekartzea, proiektu honekin proposatu nahi dudana justifikatzeko baliagarri izango direlako.

#### 1.1. Egoera soziolinguistikoaren araberrako erronkak

"Euskara hedabideetan" izeneko txostenaren sarreran esaterako, euskarak 200.000 hiztun irabazi dituela esaten da, *200.000 pertsona euskaraz irakurtzeko eta irrati-telebista ikus-entzuteko gai direnak*. Eta eransten da urte gutxitan erruz ugaritu dela euskarazko hedabideen eskaintza. Nolanahi ere, eta hemen dator kakoa, *kontsumitzaile kopurua ez da potentzialen neurrian igo (...)* Zantzu guztien arabera, *kontsumitzaile potentzial eta egiazkoen arteko aldea handituz doa*.

Argi dago beraz, **euskararen ezagutzari erabilerarena gehitu beharko diogula nahi eta nahi ez**, euskara dakiten horiek inoiz zerbaitetarako behar eta nahiko badute euskara. Txostenean honelaxe agertzen da une batean: *oraingo hartzaileen eta batik batik etorkizuneko kopurua maximotzea izan behar da lehenetsi beharreko hedabideen zeregina*. Horregatik, etorkizuneko lan ildoak zeintzuk liratekeen zehaztea ezinbestekoa da gaurtik beretik.

"Euskara hedabideetan" izeneko txostenean proposatzen den etorkizuneko ildoetako bat da hauxe: *Helburua, euskarazko hedabideen (hots, euskararen) kontsumoa bizkortzea da. Eta horretarako, bezeroak ongi ezagutu behar dira, euren nahi duten horretara egokitzeko produktua*. Hori lortze aldera, merkatuari begiratu behar zaio, *komunikazio-kontsumitzaileen artean zer dagoen aztertu, eta adin-tarte eta gizatalde estrategikoak zein diren erabaki ostean, apustu sendoak egin daitezten*.

#### 1.2. Lehenetsi beharreko hedabideak

Testuinguru honetan lehenetsi beharreko hedabideen artean **ikus-entzunezkoen sektorea dela** aipatzen da, *orain artean arreta gehiegirik izan ez duena*. Beraz, telebista eta internet dira batez ere lehenetsi beharreko hedabideak *hortik baitoa etorkizuna, eta baita gazteen erabilera ere; horrexegatik, estrategikotzat jo behar da hedabide hauen garapena etorkizun hurbilean*.

### 1.2.1 Internet

Internet bereziki lagundu behar omen da. Horixe diote aditu gehientsuenek. Batik bat gazteen artean duen erabileragatik. Eta Internet (edo euskara Interneten) bultzatu beharrekoa bada ere, bereziki, eduki berrien sorkuntza da lagundu beharrekoa. *Hots, Interneteko euskarazko mundua elikatuko duten eduki interesgarri eta kalitatezkoak bultzatzea da lehentasunezkoa*.

Hain zuzen ere, prentsa, irratia, telebista, Internet, guztiak sistema digitalean jasoko ditugu. Horrexegatik, *berebiziko garrantzia du gazteentzako eta gazteek sorturiko webguneak bultzatzeak, eurei interesatzen zaizkien gaien inguruan (musika, bidaia merkeak, arropa informala, etab.), eta euskara normaltasunez eta ohikotasunez erabiltzea lortuko dutenak*.

Are gehiago, batzuen ustez, **Internet euskarazko edukiz elikatzea estrategia nagusi gisa planteatzea beharko litzateke**. *Hots, edozein proiektu, egitasmo, erakunde nahiz hedabideri eskatu behar zaio bere edukiak Interneten eskuragarri jartzea*.

Eta gainera, **Interneten berariazko helburuak finkatu behar dira**; bereziki, haur-gazteen euskarazko erabilera bermatzeko baldintzak sortuz (kontsultarako informazioa, aisialdirako eskaintza...).

### 1.3. Lehenetsi beharreko kontsumitzaile taldeak

Nerabeak eta gazteak dira nagusiki lehenetsi beharko liratekeenak. Arrazoia garbia da: euskararen 200.000 hiztun berri horiek **nerabeak eta gazteak dira bereziki**, bai eta euskarazko hiztun dentsitate altuena duen giza multzoa ere. Eta horiek izango dira, inoiz izango badira, etorkizuneko euskararen erabiltzaileak biltzen dituenak..

Txostenean adin tarteari ezezik lekuari ere egiten zaio erreferentzia, **hiriburuetakoko euskaldunak** ageri dira lehenetsi beharreko kontsumitzaile talde gisa. Gaur egungo euskaldun kopuru handiena hirietan biltzen baita, jakin bai baina erabiltzen ez duten horiek osatzen dutena alegia.

Hala ere, zalantza sortzen da horrelako planteamenduen aurrean. Nondik eta nola zabalduko da euskara euskaldunengandik (euskaraz jakin eta erabiltzen dutenenegandik) ez bada? Euskara ez ote da zabalduko euskararen espazio sinbolikoa edo nukleoa osatzen dutenenegandik hasita? Kontuak kontu, **garbi dago hirietako euskaldun horiek helburu izan behar direla baina beti ere, jo puntua euskaraz bizi diren horiek elikatzean oinarrituta**.

### 1.4. Hedabidearen nolakotasuna

Txostenean produktu arinagoen aldeko apustua egiten da, ez eduki aldetik soilik, baita hizkuntza aldetik ere: *jende askorentzat erabiltzen den euskara bera dela astuna adierazi da*. Funtsean adierazi da hedabide serioak behar direla *behar arinagoak ase behar badira ere*.

Hizkuntzaren erabilera oso kontuan hartzekoa izango da beraz. Gazte horiek gure produktuak (izan arinak izan astunak) kontsumituko badituzte.

Aditu hauek txostenean diotenez osagai hauek beharko litzuzke hedabideak:

- Dibertsitatea - aniztasuna
- Normaltasuna
- Entretanimendua
- Informazio orokor zein espezializatua emango duten hedabideak
- Euskarri guztiak lantzea
- Elkarkidetza (sare horizontalak eta bertikalak) eta lankidetza

### 1.5. Ondorioz... [www.gaztegaragazte.org](http://www.gaztegaragazte.org)

Irakurritakoak irakurrita, behar bezala justifikatua egongo ahal da gazteentzako eta gazteek eginiko webgune baten inguruko proiektua. Adituak aditu eta iritziak iritzi guztiok ere bat etor gintezkeelako ondorengo (eta orain arte esandako) baieztapenekin:

-Lehentasunezko taldea da gazteena. Eta estrategikoa gazteentzako eduki eta kanalak bultzatu beharra.

-Interneten garrantzia

-Ikus-entzunezkoei jarri beharreko arreta berezia. Gizarteak bere aisialdiaren atal nagusi baterako hala hobetsi baititu, eta gero eta gehiago.

-Aniztasunaren beharra. Zenbat eta gehiago, hobe. Ahalik eta kolore gehien izan behar ditu euskarak.

-Elkarlana eta sareak. Aniztasuna mantenduz, baina baliabide eta produktuen optimizazio eta koordinazioa bultzatuz.

-Arintasuna. Estilo serioak eta arinak euskal hedabideen zabalkunderako konbinatu beharra.

## 2. Inkesta txiki baten emaitzak eta ondorioak

### 2.1. Nortzuk bete dute inkesta eta zergatik

Ez da inkesta handia egin duguna. Ez da, seguruenik, oso kontuan hartzekoa izango ere. Baina uste dugu zenbait pista, joera edo ohitura azalertzeko balioko duela proiektuaren habeak ausaz erabakitzen eta gazteen iritzia ezagutu gabe ibili beharrean.

Zarauzko Antoniano ikastetxeko 12-16 urte bitarteko 150 ikasleri pasa genien inkesta batetik eta Ordiziako Jakintza Ikastolako 16-18 urte bitarteko 47 ikasleri bestetik. Edo hobe esan, Zarautzen DBHko ikasleei pasa genien galdeketa eta Batxilergokoei Ordizian. Bi adin garai diferente dira eta bi ikastetxe zehar desberdin. Antoniano Ikastetxea Kristau Eskolako partaide da, eta esan liteke Zarauzko eskolarik erdaldunenetakoa dela. Gelaz kanpoko euskararen erabilera indizea %25 ingurukoa baita DBHn, [Ulibarriko](#) hizkuntza normalkuntzako diagnosiek adierazten dutenez. Ordiziakoa berriz, ikastola da eta erabilera indizerik ezagutu ez arren, erabilera handiagoa izango dela pentsa genezake.

Guk hemen, batez ere Antoniano Ikastetxeko datuak aztertuko ditugu baina baliagarri izango zaizkigu Ordiziakoak ere datuak kontrastatzeko.

### 2.2. Galdetegiko galderak, erantzunak eta ondorioak galderaka. Antoniano Ikastetxea.

GALDERA	ERANTZUNAK	ONDORIOAK
Zenbat ordu pasatzen dituzu TBn egunean?	Batez besteko bat eginda telebista 2 orduz ikusten dutela diote	·Oso garbi ageri ez bada ere 1. mailatik 4. maila bitartean telebista ikusteko ordu kopurua jaitsi ahala internetekoa igotzen da. Beraz, zenbat eta gazteago telebista gehiago eta internet gutxiago eta alderantziz.
Zenbat ordu pasatzen dituzu interneten egunean?	Batez beste interneten 1,5 orduz dabilzala diote	
TBn zer ikusten duzu? Aukeratu 3 programa	Simpson eta Padre de Familia alde batetik, el internado eta el hormiguero	·badirudi umorea dela interes gune nagusia, bai marrazki bizidunetan eta bai bestela (hormiguero esaterako), serieek ere (misteriozkoek gehienbat) jarraitzaile asko dituzte. Albistegiak ere ikusten direla diote (askoz neurri txikiagoan) helduenek
Telebistako edukiak ikusten dituzu interneten?	Bai %44	·Halere, desberdintasun handia dago adin batetik bestera. 1. mailakoen %15ak ikusten duen bitartean telebista interneten, %65a da telebista edukiak interneten ikusten dituen 4. mailakoen arten.

		·Beraz, telebista gutxiago ikusten dutela diote (lehen galdera) baina internet bide telebista gehiago ikusten dute.
Interneten non ibiltzen zara? Aukeratu 3 gune	Tuenti youtube jolasak	·Tuenti, youtube eta joko-jolasak. Argi dago ezta?
Zure mugikorrek interneteko konexioa badu?	%63	·Gaur egun ia mugikor guztiek dute interneteko konexioa. Horregatik emaitza hori.
Konektatzen zara mugikorretik internetera? Zertara?	%10	·Oso jende gutxi konektatzen da garestia dela diotelako ·tuenti eta youtuben sartzeko erabiltzen dituzte
Euskarazko webgunetara sartzeko zara eta zertara	%25,8 wikipedia hiztegiak kirolak.net	·euskarazko webgunetara oso jende gutxi sartzen da eta sartzen dena gutxitan ·euskarazko webguneak eskolako lanak egiteko soilik erabiltzen dute gehienek, eta ez ondo pasatzeko, gainerako webgune eta hizkutzekin gertatzen den bezala.
Blogak irakurtzeko ohiturarik	%12,55	·blogak ia inork ez ditu irakurtzen
Foroetan parte hartzen duzu	%3,6	·foroetan inork ez du parte hartzen
Sare sozialetan zenbat dauden	%90,3	·sare sozialetan ia denak daude eta ez dago ia diferentziarik 1. mailatik azkenekora. ·jakin gabe geratu gara zein adinekin sartzen diren gazteak sare sozialetara
Euskaraz konfiguraturata duzu sare sozial hori? Bai/ez zergatik?	Bai %35,31	·Eta kopuru hori 3 eta 4. mailan tuentia euskaraz jartzeko kanpaina egin zelako eskolan. ·euskaraz ez daukatenen arazoak: ez dakitela konfiguratzeko, gaztelaniaz hobeto moldatzen direla, ohitura, horrela etortzen zelako...
Kaleko hizkuntza bera egiten duzu interneten?	Bai %87	·Oro har, kaleko hizkuntza berean hitz egiten da sarean ere, euskaraz egiten duenak euskaraz, gaztelaniaz egiten duenak gaztelaniaz eta bestela segun eta norekin, baina kalean bezala.
Zer botatzen duzu faltan interneten	Ezer ez %83,2	Helduagoek eskatzen dutena da: publizitate gutxiago eta webgune "zaborrak" kentzea, alegia, informazioa bilatzeko gune fidagarriak izatea
Euskaraz zer botatzen duzu faltan	Jolasak leku dibertigarriak itzultzailea informazio gehiago	Leku dibertigarriak eskatzen dituzte hasteko (jolas, bideo...) eta lortzen duten informazioa euskaratzeko tresnak (seguruna ere eskolako lanetarako).
Ezagutzen dituzu webgune hauek		
<a href="http://www.irrika.net">www.irrika.net</a>	%0	·Ia inork ez ditu ezagutzen euskarazko webguneak ·ezagutzen duten bakarra Gaztea da.
<a href="http://www.gaztezulo.com">www.gaztezulo.com</a>	%5	
<a href="http://gaztea.euskonews.com/">http://gaztea.euskonews.com/</a>	%1	
<a href="http://bitakora.arrosasarea.org/">http://bitakora.arrosasarea.org/</a>	%0	
<a href="http://www.eitb.com/gaztea/">http://www.eitb.com/gaztea/</a>	%50	
<a href="http://www.gaztesarea.info/">http://www.gaztesarea.info/</a>	%2,4	

### 2.3. Galdetegiko galderen erantzunak eta ondorioak laburbilduta. Ordiziako Jakintza ikastola.

- Telebistan (1,9 ordu) eta interneten (1,7 ordu) ordu kopuru berdintsua pasatzen dutela diote
- Telebistan gehien ikusten dituzten programak: [Se lo que hicisteis](#), Gran hermano eta El conquistador.
- Interneteko gune bisitatuenak: tueni eta youtube bereziki
- Mobiletik ez da ia inor konektatzen
- Euskaraz gune hauetarako sartzen direla diote: [hiru.com](#)
- jakintza, hiztegiak, kirolak, wikipedia, zientzia.net... Argi eta garbi, eskolako lanak egiteko erabiltzen dira euskarazko guneak.
- Blogak irakurtzen dituztela diote. Berezia da baina Ikastola honek kasua: euskaljakintza.com bloga, gelakoa da jarraitzen dutena.
- Sare sozialak euskaraz konfiguratuta %28ak dituela dio argi eta garbi. Gainerakoek bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz, edo eduki izan dute edo orain ez... Eta hauexek dira sare sozialak:
  - erdaraz edukitzearen arrazoiak: *Euskaraz jarri nuen, baina pedanteegia sonatzen zuen eta aldatu egin nuen, aldatzeak nekea ematen du, ez dut lortu euskaratzea, igual zait batean edo bestean izan, gazteleraz erosoagoa zait, dauden bezalaxe nahiago dut, horrela ohitu naiz...*
  - euskaraz edukitzearen arrazoiak: euskaraz nire hizkuntza delako, ama hizkuntza,
- Sarean kaleko hizkuntza berean aritzen zara? %94ak baietz dio
- Orokorrean interneten ez du inork ezer faltan botatzen (%85ak), baina besteek haxe diote: segurtasun falta, pribatutasun falta eta fidagarritasunak kezkatzen dituztela.
- Eta euskaraz zer botatzen duten faltan: gune interesgarriagoak (zehaztu gabe zer den interesgarriagoa den hori), materiala, idatziak, marrazki bizidunak, blogak, gazte euskaldunentzat sareak, euskarazko telesailak ikusteko aukera...
- Eta zenbateraino ezagutzen dituzte euskarazko webguneak?
  - Irrika.net ez du %97,9ak ezagutzen
  - Gaztezulo %63,8ak ez du ezagutzen. Ezagutzen dutenek iritzi ona dute.
  - Gaztenews eta arrosa sarea ez du %95,7ak ezagutzen
  - Gaztea %66ak ezagutzen du eta iritzi oso ona dute oro har: Gazteentzako eta euren giroko informazio eta entretenimendu interesgarria dela iruditzen zaie.
  - Gaztesarea ez du %89,3ak ezagutzen.

### 2.4. Ondorio nagusiak

1. Interneten eta telebistan egunero egiten duten ordu kopurua 3,5 ingurukoa da. Eta adinean aurrera, telebistako eduki gero eta gehiago ikusten dituzte interneten
2. Telebistan umorea da bilatzen dena, gero misteriozko serieak.
3. Interneten sare sozialak dira lehentasun (argazkiak igo eta elkarri idazteko), eta youtube (hemen ere umorea bilatzen ote da bereziki?) eta jokoak. Telebistako eduki gero eta gehiago kontsumitzen da interneten.<sup>2</sup>
4. Mugikorretako konexioa gehienek eduki arren ia inor ez da konektatzen garestiegia delako
5. Euskarazko webguneetara 4tik 1 sartzen da eta ez dibertsioa bilatzeko helburuz, normalean eskolako lanetarako gauzak bilatzera baizik: wikipedia, hiztegiak...
6. Blogak irakurtzeko eta foroetan parte hartzeko ohiturarik ia inork ez du. Areago, gehienek ez dakite zer den blog bat.
7. Sare sozialetan gazteen %90a dago. Ez dakigu zein adinekin hasten diren sare sozialetan.
8. Sare sozialak euskaraz konfiguratuta %35ak soilik du. Arrazoiak: ez dakitela konfiguratzen, gaztelaniaz hobeto moldatzen direla, ohitura, *horrela etortzen zelako*... Messangerra ez dago euskaratua

<sup>1</sup> Galdetegia pasa genuenean oraindik gaztesareak bazuen webgunea

<sup>2</sup> Markos Zapianek blogean artikulu hau argitaratu zuen, gazteak internetan batez ere zertan aritzen diren jakiteko argigarri izan daitekeena: <http://eibar.org/blogak/zapiain/archive/2010/01/10/cyberbullying-eta-dedipix>

9. Kaleko hizkuntza bera egiten da sarean.
10. Interneten oro har ez dute ezer botatzen faltan. Sobran dagoena publizitatea dela diote eta informazio fidagarria lortzeko gune gehiago behar direla
11. Euskaraz leku dibertigarri gehiago eskatzen dituzte, jokoak euskaraz... Informazio gehiago eta itzultzailea (seguruena informazio eskolako lanetarako itzultzeko)
12. Euskarazko webguneak ez dira ezagutzen batere.

### **3. Proiektuaren izena eta izana**

#### **3.1. Proiektuaren izana**

Behin hartzailea definituta eta bere beharrak identifikatuta gazteentzako sortu nahi dugun gune honek zein ezaugarri izan behar dituen argi dago.

1. Dibertigarria izan behar du gazteak bertara sartuko badira.
2. Dibertigarritasuna izan behar du bideoz (multimedia) eta jokoen bidez.
3. Euskarazko edukien bilgune ere izan behar luke, edo bidea ireki bai behintzat, informazioa bilatzeko leku izate aldera
4. Euskaraz dauden guneak ezagutzera emateko lekua izan beharko luke
5. Sare sozialetara jo beharko litzateke informazio hau guztia ematera
6. Gazteen parte hartzea bilatuko duen proiektua izan behar du, eurak ere protagonista sentituko badira.

Horretarako ezinbestekoa izango da une honetan indarrean dauden instituzioekin kontaktzea. Alde batetik, EITBrekin. EITB baita ikusentzunezko eduki gehien euskaraz sortzen dituenena, eta beste alde batetik, hezkuntza eta aisi erakunde eta taldeekin: [Ikastolen Elkarte](#), [Kristau Eskola](#), Eskola Publikoen sarea... Herri eta hirietako aisialdi taldeekin ere kontaktu beharko genuke gure proiektua gazteek ezagutu dezaten eta nolabait ere edukien zaintza librea eta gidatua izan dadin: Gaztelekuak, Gaztetxeak...

##### **3.1.1. Proiektu parte hartzailea**

Ahoa ur bihurtzen zaigu hitz larderiatsuekin eta haxe da horietako bat. Parte hartzailearena. Baina ezinbestekoa da 2.0 filosofiarekin aritzea lanean guneak arrakastarik izango badu. Hori bai, nola gauzatzen da teoria praktikan? Proposatzen diren gauzetako batzuk dira hauek, eta seguruena ere hausnarketa handiagoa behar dutenak parte hartzea gehitu nahi badiogu proiektuari:

1. Botuen araberako ataria izanda. Meneame edo zabalduren estilora. Eurak erabakiaz zein edukiri eman lehentasuna, nor izendatu asteko pertsonaia edo horrelakoak
2. inkestak eginez
3. Gaiaren edo eduki baten inguruko iritzia eskatuz
4. Kontsultak egiteko aukera ere eskainiz
5. Euren bideo, irudi, audio eta testuak igotzeko aukera eskainiz (eskola eta eskolatik kanpo sortuak)

##### **3.1.2. Edukien nolakotasuna**

Eduki berriak sortzen baino daudenak biltzen egingo da ahalegina. Eta mota guztietako edukiak izango dira eskura. Alde batetik, arinak eta dibertigarriak direnak eta bestetik serio edo sakonagoak izan daitezkeenak. Bien arteko kontrastea bilatu beharko litzateke.

#### **3.2. Proiektuaren izena**

[www.gaztegaragazte.org](http://www.gaztegaragazte.org) aukeratuko nuke nik, nahiz eta gune hau bilgune baino ez



litzatekeen izango. Lehen esan bezala, sare sozialetan egin beharko litzateke lanik handiena.

### 3.2 Proiektuaren atalak

Bi menu nagusi

a. kolore batez	b. beste kolore batez
<p><b>a.1. irratia</b> herri irratia: arrosa saera egaztea propio sortuak...: testu irakurketak...</p> <p><b>a.2. Telebista</b> youtube euskaltube tokiko.tv ETB propio sortuak ikusezazu nontzefilm... bertsoa.com bertsoplaza.tv propio sortuak</p> <p><b>a.3. Idatzia</b> blogak: gazteentzako erreferentziak direna gaztezulo: bertako artikulu eta elkarrizketak Berria: gazte tagak duten guztiak zuzen nontzeberri sustatu Argia euskonews propio sortuak...</p> <p><b>a.4. Argazkia</b> flickr picasaweb propio sortuak</p>	<p><b>b.1. Musika</b> entzun</p> <p><b>b.2. Literatura</b> zubitegia susa-literatura</p> <p><b>b.3. Euskara</b></p> <p><b>b.4. Sexua</b> aholkuak posturak kontsulta</p> <p><b>b.5. AGENDA</b> bazter batean akaso atal hone parte izan beharrean!</p> <p><b>b.6. Iragarki laburrak</b> iragarkilaburrak.com: elkarrekin salerosketa, trukean ibil daitezten</p> <p><b>b.7. Harremanak</b> kaixomaitia.com</p> <p><b>b.8 Esapideak</b> esaera zaharrak: gotzon garate biraoak piropoak</p> <p><b>b.9. El rincón del vago</b></p> <p><b>b.10 kirolak</b> kirolak.net</p> <p><b>b.11 Zientzia</b> zernola.net hiru.com</p>

Eduki denak nahasian izango lituzke bi arlo bereiziz: zuzeneko eta datutegia. Alegia, unean berean zein eduki ari diren emititzen ikusi, entzun edo irakurri ahal izango da batetik eta bestetik, aurreko fitxategiak kontsultatu ahal izango dira.

## 4. Proiektuaren hizkuntza

### 4.1. Gazte hizkera zehazteko irizpideak

Kalitatezko hizkuntza lortzea izango da helburu eta horretarako lan nekeza izango da egingai. Izan ere, gazteentzako hizkuntza eredu estandarrik ez dago, baina hausnarketa egin beharko litzateke hainbat arloren inguruan: gramatikaltasuna, normatibotasuna, argitasuna, ekonomia,

adierazkortasuna, soiltasuna...

Dena dela argi daukagu zein den abiapuntua, zeinentzat ari garen alegia. Helburua ere bai. Gazteak webgunean sartzea nahi badugu hizkuntza oztopo baino erakargarri bihurtu behar dugu, webgunearen amu nagusia kasik. Horretarako, noski, plangintza bat egin beharko litzateke espero diren emaitzak lortzeko intentzioarekin. Irizpideak ere zehaztu beharko lirateke ebaluazioa egiterakoan zeri heldu eta zertan erreparatu jakiteko.

Gure webgunean eta sare sozialetan gazteek darabilten hizkera aztertzeari berebiziko garrantzia eman beharko litzaioke. Haien hizkera eredia aztertzea ezinbestekoa izango baita gure webgunearen hizkera eurenera doitzeko. Alegia, ereduak aztertu ondoren erabiliko dugun hizkuntz irizpideak zehaztuko genituzke eta erabiltzen hasi, noizik eta behin ebaluazioa egiteko. Horretarako, jakina, lan talde bat osatu beharko litzateke aipatutako lan guztiak pausuz pausu egiteko. Lan talde bat edo kontsultore bat kontrata daiteke lan hauek egiteko:

<http://www.maramara.net/>

#### 4.2. Gazte hizkeraren datu basea oinarri

Bide beretik, interesgarria izango litzateke gazteek eurek emandako ereduakin datu base bat sortzea, ahal dela erregistro maila ezberdinak bilduaz, ahal dela euren testu, audio eta bideoetan oinarrituta. Eta ahal dela, zergatik ez, ikastetxe edo aisialdi taldeen bidez ikerlan sakon bat eginda, gazte hizkera aztertzea eta lantzea ez baita webgune honen interesekoa soilik izango, beste eremu ugariarako ere baliagarri izan baitaiteke aztelana.

Hartara, eskura izango genituzke hainbat eredu, guk ere noizbait erabili ahal izateko eta gure hizkuntza irizpideak xehetzen jarraitzeko. Ezin dugu ahaztu, hala ere, orain arte zenbait lan egin direla gazte hizkera zehazteko edo aberasteko, irizpideak definitze aldera. Horiek denak kontuan izan beharko genituzke ezertan hasi aurretik, horiekin beraiekin hasi beharko genuke datu basea osatzen.

Hona hemen zenbait gune, gazte hizkeraren inguruan edo esanindar handiko hizkerez osatuak:

·Adarra jotzeko, haserretzeko edo ligatzerakoan erabiltzen esapideak: [aisia.net](http://aisia.net)

·Deba ibarreko Badihardugu euskara elkarteak eginiko esapide bilketa, [Berbeta berua](http://berbeta.berua.net) izenekoa

·Nafarroak bildutako biraoez osatutako [liburua](http://liburua.net)

·Erabili.com atarian argitaratutako zenbait testu. [Zidor semantikoak hizkera kolokialean](http://zidor.semantikoak.hizkera.kolokialean.net): [adierak I](http://adierak.i.net), [Zidor semantikoak hizkera kolokialean](http://zidor.semantikoak.hizkera.kolokialean.net): [kalifikazioak II](http://kalifikazioak.ii.net), [Zidor semantikoak hizkera kolokialean III](http://zidor.semantikoak.hizkera.kolokialean.net),

·HIKEA, EITBren terminologia [datu-basea](http://datu-basea.net)

·Euskal [lokuzioak](http://lokuzioak.net) sarean

·[Mantxut](http://mantxut.net)

·*Beasaindio*. *Beasaingo esamoldeak* izeneko liburuxka

·Gazte hizkerari buruzko jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak [Urtxintxa Eskolak](http://urtxintxa.eskolak.net) atarea

...

#### 4.3. Norbere hizkeratik aberastutako hizkera

Euskaraz sortzeko duguna asko da. Baina sortua duguna ere ez da gutxi. Hori frogatu du [Mihiluze](http://mihiluze.net) telebista programak. Eta horixe adierazten dute herri askotan bildu diren bertako hizkeraren testigantza ugariak. Amu polita izan daiteke gazteentzat ere beste herrietan gauzak nola esaten diren jakitea, ikustea, ikastea. Lehiaketaren batzuk edo galdera batzuk presta litezke bakoitzak bere herriko esapideak adierazteko eta bide batez datu basea osatzen joateko: txistekak, hitz jokoak, piropoak, koplak, ipuin laburrak...

### 5. Proiektuaren zabalpena

Aurreko puntuan aipatu dugun bezala ezinbestekoa izango da ezagutzen ditugun eta lankidetzarako prest egon litezkeen erakunde, talde eta instituzioekin elkarlanean aritzea. Horretaz gain, gazteengana jo beharko dugu gure proiektuaren berri ematera. Horretarako gazteak non dabilzan jakin behar dugu eta batez ere zertan dabilzan eta nola funtzionatzen duten. Kanean eta eskolan egin beharko litzatekeen zabalpenak probokatzailerak eta iradokitzailerak izan beharko luke. Nolabait ere jendarte arauekin hautsiko duena, ondo pasatzeko eta ikasteko (edo hezteko) lekua izango dela adiraziko diona. Ez dadila gerta euskaraz sortzen diren gainerako webguneen patu berera kondentatua izan. Horretarako kalitatezko edukien aldeko apustua egiteaz gainera [multimedien aldeko lana](#) egin beharko bada ere, [komunitatea](#) sortzen jarri beharko indar gehienak.

Baina nondik hasi sortzen komunitatea? Kanean eta eskolan presente egoteaz gainera non eta nola egin beharko da lan?

### 5.1.Sare sozialak abiapuntu

la gazte guztiak daude era bateko edo besteko sare sozialetan. Hasi, Windows Live Messengerrekin hasten dira. Ondoren 12 urte ingururekin Tuenti izeneko sare sozialera egiten dute jauzi eta azkenik, normalean behintzat, 16 urtetik aurrera hasten dira pixkanaka-pixkanaka Facebook izeneko sarera katigatzen.

Beraz, ezinbestekoa da gazteak dabilzan amaraun horiek zehatz-mehatz ezagutzea sare horietan gure lanak arrakastatsua izan nahi badu. Horretarako, [Davide de Ugarteren](#) lan batean oinarrituko naiz, sare sozialetan aurrera eramango genituzkeen estrategiak zehazteko: [Breve historia del análisis de redes sociales](#) Gorka Juliok [2010eko Udaltop](#) jardunaldietan proposatuko duen txostena ere oinarri izango da ondorengo lerroetan.

### 5.2.Sare sozialen ezaugarriak

Jarraian, David de Ugarteren [txosteneko](#) zenbait ideia zerrendatuko ditut kontuan izan beharrekoak direlakoan mota honetako proiektu batean sare sozialetan nola eragin eta norengandik hasita jakiteko.

- Sareak ez dira neutralak. Sare sozialak aztertzea sarearen estruktura zehaztea da eta horrela sarean eragiteko (bai norbanakoengan, bai osotasunean) izango ditugun aukerak jakingo ditugu. Sare sozialak aztertzeak zer gertatu daitekeen eta zer ez daitekeen gerta jakinaraziko digu, ez zehatz-mehatz gertatuko dena.

- Sarea nodo multzoa bat da. Nodo horiek sareko eragileak direla esaten da analisi sozialean. Eta lerro bidez lotuta nodoen arteko harremana(k) adierazten dira.

- Sare sozialak ez dira estatikoak. Dinamikoak dira gure harremanak aldatu egiten direlako, bilakaera bat izaten dutelako. Sare sozialetan eragiteko mezuak ere aldatu egin behar dira, harremanak aldatzen diren heinean.

- Sarean edozein motatako erdiguneak bilatzeak ez digu emaitza onik emango, erdiguneak sarean dauden mugimenduen (edo gertakarien) ondorioz azaleratzen dira.

- Sarean norbanakoen arteko harremanak bi motatan bereizi daitezke: harreman estuak eta azalekoak. Azaleko harremanek harreman estuek bezainbesteko garrantzia izan dezakete.

- Konektoreak sortzen dira sareko nodoen arteko lotura estrategikoen eta interesen ondorioz. Beraz, normalean sareko dinamizatzaileek konektoreak erabiltzen dituzte sarean eragiteko.

- Matxinatze muga<sup>3</sup> txikia duten pertsonetan errazagoa da aldaketak gertatzea euren arteko harremana estua bada. Aldiz, matxinatze muga handia duten pertsonengan aldaketak gertatzea errazagoa da harremanak arinak izango balira. Hemen harremanetaz ari garenen ez gara ari lehenxeago aipatutako harreman estu eta azalekoei buruz, norbanakoek beste norbanako guztiekin duten harremanaz eta euren arteko ezagutzaz baizik.

<sup>3</sup> Matxinatze mugak adierazten du inguruko zenbatek aldatu beharko dute jokabidez (edo iritzi) norberak bere jokabidea edo iritzia alda dezan sozialki baztertuta sentitu gabe.


Azken finean, aztertu beharko genuke prozesu batean subjektu aktibo eta pasiboak zeintzuk diren, zenbaterik hartu duten parte prozesuan parte eta abar. Baina beti ere, sarean eragiteko ditugun asmoen hipotesiak egin beharko genituzke norbanakoetatik hasita. Hipotesi horietan ez dugu beti asmatuko, edo akaso ez dugu ia inoiz asmatuko. Gure ahaleginak koherentea izan behar du, hurrengo ahaleginean gehiago asmatzeko.

Finean, txosten honetan aipatzen ez bada ere, hiru erabiltzaile mota bereizten dira. Eta hau [hemendik](#) ateratu dut, Gorka Julioren txostenetik iritsita.

- Connectors: gure munduak mundu txiki baten ezaugarriak izan ditzaan laguntzen duten pertsonak dira. Harremanak egiteko erraztasunak dituzte.

- Mavens: ezagutza handia metatzen duten pertsonak dira. Erreferenteak izan ohi dira eta gehienbat joera berriak sortzeko gaitasun handia dute.

- Salesman: hainbat pertsona beraiekin ados jartzeko gaitasuna erakusten duten pertsonak dira.



### 5.3. Sare sozialetan eragin

Behin sare sozialen analisia eginda zein pausu eman beharko genituzkeen azalduko dugu jarraian. Horretarako Gorka Juliok Udaltopelan, besteak beste txosten honetako diagnosian oinarrituz, aurkeztuko duen txostena izango dugu abiapuntu.

- Interneteko sare sozial horietan kontu bat sortu beharko genuke: [Tuenti](#), [Facebook](#), [Hogetti](#)...

- Sortutako kontuko kide egiteko aukera eskainiko genieke gazteei

- Horretarako, jomuga dugun taldearen dinamika ezagutu beharko dugu. Beraien sarean onartuak izateko Maven izan beharra dago. Taldeak zu aukeratu behar zaitu eta ez alderantziz. Horregatik aukeratu beharreko pertsonak ezin du edozein izan. Salesman moduan aritzea ez da egokiena, batez ere 16-18 urteko gazteen artean, aurkako jarrera sor baitaiteke.

- Sareetako pertsonak beraien artean dituzten harremanak ezagututa erreferenteak eta konektoreak zein diren jakinda, mezua errazago zabaltzen saia gaitzake. Baina hori baino garrantzitsuagoa da sareraren dentsitatearen eta matxinatze mugaren berri jakitea.

- Berez, gure mezua garraiatuko duten pertsonak egongo dira matxinatze muga txikietan. Horrela, harremana duten pertsonen arteko dinamikak bultzatzea daiteke, sare horiek trinkotzeko nahiarekin.

- Matxinatze muga altuetarako gure mezua garraiatuko duten pertsonak gutxi izanik, mezua zabaltzeko prest dauden horiek beraien antzeko interesak dituztenekin lotzen saia gaitzake.

### 6. Amaitzeko hitz bi

Lan nekeza eta handia aurreikusten da horrelako proiektu bat aurrera eramateko. Baina garbi

dagoena da norbaitek heldu beharko liokeela lanari, etorkizuneko erreferentzia izango direnekin euskaraz eta euskaratik lan egitea ezinbestekoa delako. Bakarlanean hastea alferrikako lana izan daitekeela argi dago, euskaraz produktu multimediak egon badaudelako, euskaraz ere edukiak sortzen direlako. Horiek aprobetxatzea eta horiek eskuragarri jartzea izango litzateke bidea, une honetan indarra duten eragile eta instituzioekin lankidetzan. Lan honetan sartu nahi duenari lehen harria eta etxea eraikitzeko osagaiak jartzen saiatu gara. Izango ahal da norbait tentatu eta lan honetara jarriko denik!

## **Bibliografia**

SALABERRI, P. & ZUBIRI, J.J (2007) *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Iruña. Pamiela  
URTXINTXA ESKOLA (2005) *Gazt\_ hizkera jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak*  
BEASAINGO UDALA (2008) *Beasaindio. Beasaingo esamoldeak*. Beasain. Beasaingo udala gazte hizkera

## **Webliografia**

<http://bitakora.arrosasarea.org/>

<http://en.wikipedia.org/wiki/Adolescence>

<http://gaztea.euskonews.com/>

<http://hogetti.net/>

<http://intza.armiarma.com/>

<http://www.aisia.net/hitzontzia/hitzontzia.php?kategoria=4>

<http://www.argia.com/mantxut/lokuzioak.htm>

[http://www.badihardugu.com/argitalpenak/berbeta\\_berua](http://www.badihardugu.com/argitalpenak/berbeta_berua)

<http://www.eitb.com/gaztea/>

<http://www.eitb.com/telebista/etb1/programak/mihiluze/>

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1096284906](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1096284906)

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1100262943](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1100262943)

[http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1118824554](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1118824554)

<http://www.facebook.com/>

<http://www.gaztesarea.info/> orain <http://topatu.info/>

<http://www.gaztezulo.com/>

<http://www.hiru.com/>

<http://www.ikastola.net/>

<http://www.irrika.net/>

<http://www.kristaueskola.org/>

<http://www.maramara.net/>

<http://www.pekkahimanen.org/>

<http://www.seloquehicieis.lasexta.com/inicio>

<http://www.tuenti.com/>

<http://www.ulibarri.info/>

Euskara hedabideetan

<https://www6.euskadi.net/r59->

[738/eu/contenidos/informe\\_estudio/azter26\\_1\\_ej\\_08\\_07/eu\\_ej/azter26\\_1\\_ej\\_08\\_07.html](https://www6.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informe_estudio/azter26_1_ej_08_07/eu_ej/azter26_1_ej_08_07.html)

David de ugarte

[http://www.deugarte.com/gomi/historia\\_del\\_analisis\\_de\\_redes\\_sociales.pdf](http://www.deugarte.com/gomi/historia_del_analisis_de_redes_sociales.pdf)

<http://deugarte.com/>

Gorka Julio, Teketen

<http://teketen.com/>

HIKEA

<http://www.eitb.com/euskaraz/kontsultak/>

Jose Luis Orihuelaren bloga

<http://www.abc.es/blogs/jose-luis-orihuela/public/post/hay-que-superar-la-obsesion-por-el-trafico-y-apostar-por-la-comunidad-2918.asp>

<http://www.abc.es/blogs/jose-luis-orihuela/public/post/las-cosas-que-no-cambian-2710.asp>

Markos Zapiainen bloga

<http://eibar.org/blogak/zapiain/archive/2010/01/10/cyberbullying-eta-dedipix>

Udaltop 2010

<http://www.gipuzkoaeuskara.net/albisteak/1266589841>

Urtxintxa eskola:

<http://www.urtxintxa.org/>

Vox pop design

<http://voxpathdesign.com/bloomburst/wordpress/?cat=10>